Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko uztailaren 9a, astelehena — 131 — Lunes, a 9 de julio de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## URNIETAKO UDALA

*Urnietako Bake Epaile Titularra eta Ordezkoa izendatzeko deialdia.*

Urnietako Udalak jakitera ematen du Botere Judizialeko Lege Organikoaren 99tik 103 artikuluetara eta 1995eko ekainaren 7ko 3/95 Bake Epaileen Araudian ezarritakoaren arabera, udal- batzarrari dagokiola udalerri honetako bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzea. Idatzi honen bidez Osoko Batzarrak bake epaile titularra eta haren ordezkoa hauta ditzan jardunbideari hasiera ematen zaio ondoren Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoak izenda dezan, lau urteko aldirako.

Instantziak Urnietako Udalaren erregistro nagusian aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argita- ratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hogei egun naturaletako epean.

Izangaiek adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatutako baldintzak, instantziak aurkezteko epea bukatzen den egunean; era berean, instantzian alegatutakoa egiaztagirien bidez frogatuko dute eta ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela egiaztatuko dute.

Era berean, izangaiek memoria txiki bat egin eta erantsiko dute, beren hautagaitzaren egokitasuna eta balorazioa egiterakoan kontuan har daitezkeen aldagaiak adieraziz.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, udalbatzarrak aukeratuko ditu bake epaile titularra eta ordezkoa, eskaera aurkeztu dutenen artean. Erabakia udalbatzarkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu beharko da, betiere hautagaiek ezarritako legezko betebeharrak betetzen badituzte. Eskaerarik ez balego, udalbatzarrak modu askean aukeratuko ditu prozedura bera aplikatuz, eta Organo Jurisdikzional eskudunari jakinaraziko dio erabakia.

Udaleko idazkaritzan espedientea aztertu daiteke eta informazioa jaso.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Urnieta, 2018ko ekainaren 28a.—Mikel Pagola Tolosa, alkatea. (4817)

ERANSKINA

1. *Bake Epaile izateko betebeharrak.*

— Estatu espainiarrekoa eta adinez nagusia izatea.

— Eginkizun judizialerako ezgaitua ez izatea, ez fisikoki, ez psikikoki ere.

— Eskubide zibil guztien jabe izatea.

— Maltzurkeriazko delituagatik kondenatuta ez egotea, errehabilitazioa lortzen ez den bitartean.

— Maltzurkeriazko delituagatik auzipetuta edo inkulpatuta ez egotea, absoluzioa edo largespena lortzen ez den bitartean.

## AYUNTAMIENTO DE URNIETA

*Convocatoria para elección de Juez de Paz Titular y Sustituto de Urnieta.*

El Ayuntamiento de Urnieta hace saber que de conformidad con lo dispuesto en los artículos 99 a 103 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y el Reglamento 3/95 de 7 de junio de los Jueces de Paz, corresponde al Pleno del Ayuntamiento elegir las personas para ser nombradas Juez de Paz titular y Juez sustituto de este Municipio. Mediante este escrito se inicia el procedimiento para la elección por el Pleno Municipal del/de la Juez/a de Paz titular y suplente y posterior nombramiento por la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, por un período de cuatro años.

Las personas interesadas deberán presentar la instancia correspondiente en el Registro General del Ayuntamiento en el plazo de veinte días naturales contados a partir de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Los interesados deberán hacer constar en la instancia que reúnen todos los requisitos exigidos a la fecha del cierre de presentación de las mismas, y asimismo deberán adjuntar documentación acreditativa de lo alegado en la instancia y demostrativa de la inexistencia de incapacidad o incompatibilidad.

Asimismo deberán los candidatos adjuntar una breve memoria argumentando la idoneidad de su candidatura y cuantos otros aspectos crean necesario sean tenidos en cuenta a la hora de valorarla.

Finalizado el periodo de presentación de instancias, el Pleno del Ayuntamiento con el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros elegirá el Juez de Paz titular y el sustituto, de entre aquellos que lo hayan solicitado, siempre que cumplan los requisitos legales establecidos. En caso de no haber solicitudes, el Pleno de la Corporación los elegirá libremente con sujeción a los mismos requisitos de procedimiento, comunicando el acuerdo al Órgano Jurisdiccional competente.

En la Secretaría del Ayuntamiento puede ser examinado el expediente y recabar la información que se precise.

Lo que se publica para general conocimiento.

Urnieta, a 28 de junio de 2018.—El alcalde, Mikel Pagola Tolosa. (4817)

ANEXO

1. *Requisitos para ser Jueces de Paz.*

— Ser español/a y mayor de edad.

— No estar incapacitado/a física ni psíquicamente para la función judicial.

— Estar en el pleno ejercicio de los derechos civiles.

— No estar condenado/a por delito doloso mientras no se obtenga la rehabilitación.

— No estar procesado/a o inculpado/a por delito doloso en tanto no se obtenga la absolución o el sobreseimiento.

EK\CV GAO-I-2018-04817

*2. Gaitasun eta bateragarritasun baldintzak.*

— Ez da inolako titulazio berezirik eskatzen, bake-epailearen betebeharrak eta eginkizunak betetzeko adina gaitasun baizik.

— Jarduera profesional edo merkataritzakoak egiteko bateragarritasuna dute, betiere inolako motako aholkularitza juridikorik ekartzen ez badute, eta, jarduera horren berezko izaerak ez badu eragozten alderdikeriarik gabe eta modu independentean jokatzea edo bere betebehar judizialak zuzen betetzea.

— Irakaskuntza eta ikerketa juridikorako bateragarritasuna dute.

— Ezingo dira alderdi politiko edo sindikatuetako kide izan edo horien konturako lanik egin; ezin izango dute udal-hauteskunde edo legislatiboetan parte hartu; eta ezin izango dute botere judizialeko kide gisa bilera edo ekitaldi publikoetan parte hartu, bilera edo ekitaldi horrek ez badu izaera judiziala.

*3. Eskubide eta betebeharren inguruan.*

— Udalerrian bizi beharko dute, Justiziako Epaitegi Gorenak arrazoi sendoengatik beste herri batean bizitzea baimentzen duen kasuan izan ezik.

— Epaileak finkatuko ditu entzunaldiak.

— Bere aginteak irauten duen bitartean, kenezina izango dira.

— Bere karguagatik ezagutzen dituen ekintzak edo berriak isilpean gordetzera behartuta daude.

— Legez dagozkien prozesuen ordenamendu zibila eta penala ezagutuko dute.

— Erregistro Zibileko eginkizunak beteko dituzte eta legeak ezartzen dizkien beste batzuk.

— Epaile kargua lau urterako da.

— Legez ezarritako sistema eta kopuruekin ordainduko zaie.

— Bere eginkizunak burutzerakoan delituak eta falta edo kalte eta galerak maltzurkeriaz edo erruaz egiten badituzte, erantzukizun zibil edo penalaren pean egongo dira.

— Legean aurreikusitako lizentzia eta baimenak izango dituzte, bere karguaren izaeragatik eta profesionaltasun ezagatik eratorritakoetan izan ezik.

*2. Condiciones de capacidad y compatibilidad.*

— No se exige titulación específica alguna, sino capacidad suficiente para el cumplimiento de las obligaciones y funciones del/de la Juez/a de Paz.

— Tienen compatibilidad para el ejercicio de actividades profesionales o mercantiles siempre que no impliquen asesoramiento jurídico de ningún tipo y que, por su naturaleza no sean susceptibles de impedir o menoscabar su imparcialidad e independencia ni puedan interferir en el estricto cumplimiento de los deberes judiciales.

— Tienen compatibilidad para la dedicación a la docencia o a la investigación jurídica.

— No podrán pertenecer a partidos políticos o sindicatos, o tener empleo al servicio de los mismos, ni participar en las elecciones legislativas o locales ni participar como miembros del Poder Judicial en ningún acto o reunión pública que no tenga carácter judicial.

*3. De los derechos y deberes.*

— Deberán residir en el municipio, salvo que por razones justificadas el Tribunal Superior de Justicia autorice la residencia en municipio distinto.

— El/La Juez fijará las horas de audiencia.

— Gozará de inamovilidad durante el tiempo que dure su mandato.

— Están obligados a guardar reserva sobre los hechos o noticias que conozcan por razón de su cargo.

— Conocerán en el orden civil y penal de los procesos cuya competencia corresponda por ley.

— Cumplirán funciones de Registro Civil y las demás que las leyes les atribuya.

— El cargo de Juez es por cuatro años.

— Serán retribuidos por el sistema y cuantía que legalmente esté establecida.

— Están sujetos/as a responsabilidad penal y civil cuando en el ejercicio de sus funciones cometan delitos y faltas o daños y perjuicios con dolo o culpa, respectivamente.

— Están sujeto/as al régimen de licencias y permisos previstos en la Ley con las excepciones que se deriven de la naturaleza de su cargo y de su carácter no profesional.

EK\CV GAO-I-2018-04817